



ALBACORA



Albacora eta Pevasa Erronkaren oinarriak

1. Zer da Biok!?

Biok! BEAZek (Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren erakundea) negozio-aukera berriak sortzeko eskaintzen duen topagunea da, eta bi helburu ditu:

- Bizkaiko erreferentziako enpresen lehiakortasun-posizionamendua finkatzea, tokiko eta nazioarteko talentuei eta gaitasunei sarbidea emanez.
- Bizkaira erakartzea eta bizkortzea startup, ETE edo gaitasun handiko beste erakunde batzuk, bai teknologikoak, bai jakintza-arlo jakinetakoak, merkatuko lehen aukera bat emanez.

Proposamenak aurkez diezazkiekete BiOK! plataformari, munduko edozein tokitako startup edo erakundeek. Erreferentziako erakunde bakoitzak bere garapen-lehentasanak identifikatuko ditu erronken bidez, eta erronka horiek bakoitzak bere azterketa- eta hautaketa-prozesuak izango ditu.

Benetan uste dugu modu irekian eta elkarlanean berritzea dela dibertsifikatzeko eta hazteko biderik arrakastatsuen.

2. Dokumentuaren helburua

Dokumentu honek zerbitzua antolatzen duen BEAZ enpresaren eta ekintzailtza-ekosistemari erronka jarri nahi dioten Albacora eta Pevasaren artean lankidetzan aritzeko oinarriak ezartzen ditu.

3. Parte hartzeko baldintzak

Edozein ekintzailek, startupek, enpresa txiki eta ertainek, teknologia-zentrok edo unibertsitatek parte hartu ahal izango dute erronkan, baldin eta Albacora eta Pevasak ezarritako erronkaren zati bat edo osoa konpontzen lagun dezakeen proposamen bat badute. Ezarritako erronkari irtenbidea eman nahi dioten erakundeentzat, ez da beharrezkoa izango Bizkaian kokatuta egotea.

Parte hartzaileak, jatorriz edo gerora baldintza horietakoren bat betetzen ez badute, erronkatik kanpo utzi ahal izango dira, inolako zerbitzurik jasotzeko aukera galduta eta deialdi honen antolatzaileei ezer erreklamatzeko eskubiderik gabe:

- Startup, ETE edo erakunde berak proiektu bakar batean parte hartu ahal izango du, bakarka edo hirugarrenekin batera.
- Konponbidearen garapenean parte hartzen duten proiektu-taldeko kideek adinez nagusiak izan beharko dute eta legezko gaitasuna izan beharko dute.
- Parte-hartzaileek erronkan erregistratzean ematen dituzten datuek egiazkoak eta osoak izan beharko dute.



ALBACORA



Deialdi honen antolatzaileek, aldez aurretik abisatu gabe, erronkan ez onartzeko edo baja emateko eskubidea izango dute, baldin eta, beren ustez, iruzurrez, gehiegikeriaz, programaren espirituaren edo legearen aurka, hirugarrenen eskubideen aurka eta/edo fede onaren aurka jarduten badute. Hori guztia, jokabide horietatik eratortzen diren erantzukizunak alde batera utzi gabe, partaideek oso-osorik hartuko baitituzte beren gain, antolatzaileak inolako ardurarik hartu gabe. Nolanahi ere, antolatzaileen ospe edo izen onaren aurkako jarduera izan dezakeen edozein parte-hartzaileri baja eman ahal izango diote. Era berean, edozein parte-hartzaile ez onartzeko eskubidea izango dute, planteatutako erronkei erantzun egokia ematen ez dietela uste dutelako edo, onartutako proiektu-kopurua edo beste edozein arrazoi dela medio.

Erronka honetan izena emanda, parte-hartzaileek oso-osorik eta erreserba edo baldintzarik gabe onartzen dituzte oinarri hauetan jasotako terminoak.

4. Eskabideen aurkezpena

Ekimen honetan parte hartu nahi duten erakundeek dagokion eskabide-inprimakia bete beharko dute, eta eskatzen zaien edo interesgarri ikusten duten informazio guztia erantsiko diote inskripzioari.

✓ Eskaera hurrengo plataformaren bidez aurkeztu ahalko da:

✓

<http://bizkaiaok.eus>

✓ Informazio gehiago hemen:

info@bizkaiaok.eus

Eskabide-inprimakiak honako informazio hau izango du:

- Harremanetarako informazioa.
- Enpresari buruzko informazio orokorra.
- Proposatutako irtenbidea.
- URL –proposatutako irtenbidea azaltzen duen bideoa (aukerakoa)
- Proposatutako irtenbidearekin lotutako berrikuntza-elementuak (produktua, prozesua, marketina eta antolaketa) edo I+Gko emaitzak
- Proposatutako irtenbidearekin lotutako teknologiak (halakorik badago).
- Konponbidearen garapenean parte hartuko duen taldea.
- Onurak.
- Arriskuak.
- Laguntzaileak.
- Garapen-egoera.
- Kostua.
- Epeak.
- Beste ohar batzuk.

Datu pertsonalak babesteko politika onartzea



ALBACORA



Hautagaitzak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 16an hasi eta 2020ko abenduaren 11n amaituko da, 18:00etan (GMT+1).

5. Ebaluatzekeo prozesua

Proiekturik onenak aukeratzeko, Ebaluazio Talde bat eratuko da Albacora eta Pevasako eta Beazko kideekin, eta horiek egingo dute hautaketa-prozesua.

Proiektuaren helburua eskualdeko enpresen erronkari erantzuna emango dion ideia berritzaile bat garatzea denez, aldeko balorazioa egingo zaio talde sustatzaileak bere jarduera Busturialdean ezartzeari, pilotua gauzatzeko epean; Bermeon bertan, non Udalak lokal bat jarriko duen haien esku, nahiz Gernikako Elkartegian izan.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, BEAZek aurkeztutako eskaeren kalitatearen lehen berrikuspina egingo du, eskatutako informazioa behar bezala bete ez dutenak baztertuz(astebete).

Albacora eta Pevasak izendatutako pertsonak aurkeztutako eskabideak aztertuko dituzte eta ikuspuntu tekniko batetik baloratuko dituzte eskabide bakoitza, proiektuen aurrehautaketa bat izan arte (hiru aste).

Aurrez hautatutako proiektuekin banakako elkarrizketak egingo dira online edo telefonoz, Ebaluazio Taldeak informazio gehiago izan dezan proposatutako irtenbideari eta talde sustatzaileari buruz. Elkarrizketa horiek 2021eko urtarrilaren 18etik 22ra bitartean egingo dira.

Proiektu finalistek "in factory innovation trip" tailerrean parte hartuko dute. Tailer horrek bi egun izango ditu:

- 1. eguna: Albacora eta Pevasa, Bizkaiko ekosistema berritzailea eta erronkaren xehetasunak zehatz-mehatz ezagutzea, Albacora eta Pevasako teknikariekin egun batez eskuz esku lan eginez proposatutako irtenbideak aztertzekeo.
- 2. eguna: hautatutako proiektuak jasotako feedbackarekin eta azken aurkezpenarekin egokitzen saiatuko dira.

"In factory innovation trip" egiteko aurreikusitako datak 2021eko otsailaren 2 eta 3a dira.

Proiektu finalistak gutxienez aste bat lehenago jakinaraziko dira posta elektronikoz, 2021eko urtarrilaren 22a baino lehen.

Orduan erabakiko du Ebaluazio Taldeak irabazlea. Emaitzak posta elektronikoz jakinaraziko dira 2021ko otsailaren 26an.

Adierazitako datak gutxi gorabeherakoak dira, eta aldatu egin daitezke, behar izanez gero.

Proiektua aztertu eta ebaluatzekeo, parte-hartzaileek baimena ematen diete antolatzaileei Ebaluazio Taldeko kideei jakinaraztekeo zer ideia, dokumentazio eta informazio eman dituen parte-hartzaileak deialdi honetan parte hartzekeo.



ALBACORA



Ebaluazio-taldeak proposamen finalista bakoitzaren alderdi hauek baloratuko ditu:

- Berrikuntza: proposatutako irtenbidean berrikuntza-maila baloratuko da.
- Proiektuaren eraikuntza-maila: proposatutako irtenbidearen garapen-maila.
- Proiektu-taldea: parte hartzen duten erakundeetako lantaldea, haien esperientzia, dedikazioa, merkatuaren ezagutza, kontaktuak, etab.
- Epeak: konponbidea merkatuan martxan egon daitekeen denborak.
- Bideragarritasuna: Proiektuaren bideragarritasuna eta enpresak pilotuak irauten duen 6 hilabeteetan lekualdatzeko prest egotea.
- Proiektuaren irismena: proposatutako irtenbidearen erantzun-maila eta planteatutako arazoari nola heltzen dion baloratuko da.

6. Proiektu irabazlea

Albacora y Pevasak erronkaren irabazlea hautatuko dute, eta enpresa irabazleari proiektu pilotu baten garapena kontratatzeko konpromisoa hartzen dute, 15.000 €-tik beherako balioarekin.

Enpresa irabazleak 6 hilabeteko gutxi gorabeherako epea izango du, Albacora y Pevasarekin banaka adostuko dena, proiektua gauzatzeko.

7. Jabetza industrial eta intelektual

Une oro, hautagaitza aurkeztu duen pertsonaren edo enpresaren jabetzakoak izango dira proiektua eta horrek ekar ditzakeen patenteak. Erronkan parte hartzeak ez du esan nahi pertsona edo enpresa hautagaiak enpresa erreferenteari partaidetza lagatzen dionik.

Hala ere, erronka irabazi duen proiektuak erreferentziako enpresarekin konponbidearen benetako pilotu bat gauzatzeak bi aldeak lotuko dituen kontratu bat sinatzea ekarriko du. Kontratu horretan, besteak beste, pilotua gauzatzetik sortutako balizko propietate industrial/intelektualen ondoriozko erabilera-baldintzak adostuko dira.

8. Azken oharrak

Parte-hartzaileek berariaz onartzen dute, deialdi honetan parte hartze hutsagatik, antolatzaileek beren izena erabili ahal izatea, bai banaka, bai startuparen izenean, bai eta hari lotutako irudi eta/edo logoen izenean ere, edozein bide erabilita eta korporazio-, publizitate-, sustapen- eta/edo eskusiboki, proiektu irabazlea gainerako parte-hartzaileei eta publiko orokorrari ezagutarazteko, lurralde- edo denbora-mugarik gabe, eta inolako ordainsaririk sortu gabe.

Erronka hau aldatu, eten, desaktibatu eta/edo bertan behera utzi ahal izango da, baldin eta horretarako arrazoi justifikatuak badaude.

Era berean, antolatzaileek eskubidea izango dute onura guztiak edo batzuk esleitu gabe uzteko, baldin eta aurkeztutako proiektu batek ere ez badu merezi finalista edo irabazlea izatea Ebaluazio Taldearen iritziz.



ALBACORA



9. Erronkaren testuingurua

Albacorak eta Pevasak identifikatutako erronka Bizkaia Orekan ekimenaren esparruan sortu zen. Estrategia hori Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak bultzatzen du, Garapen Agentziekin lankidetzan.

Bizkaia Orekan ekonomiaren sustapenaren arloan lan egiten duten eragileen arteko lankidetzak eta gobernantza-harreman berrien bidez Bizkaiko lehiakortasuna indartzeko ikuspegi globaletik sortu zen. Helburua da Bizkaia lehiakorra eta lurraldeari dagokionez orekatua eraikitzea, Bizkaian elkarrekin bizi diren errealitate sozioekonomiko desberdinak kontuan hartuta.

Esparru horren barruan, 2019an, Busturialdeko enpresa-sarea bultzatzeko eta sendotzeko proiektua jarri zen abian. Proiektu honen helburua enpresen eta agentzien arteko baterako lan-dinamika bat sortzea da, eskualdeko enpresen berrikuntza- eta dibertsifikazio-erronkei aurre egiteko enpresa-ekimen berriak erakarriz, eskualdeko enpresa-sarearen lehiakortasuna indartzeaz gain enplegua sortzen lagunduko dutenak.

Epe ertainera, proiektu honen helburua eskualdeko lankidetzako dinamika bat abian jartzea eta sendotzea da, Busturialdeko enpresen garapen lehiakorrean lagunduko duen ekintzailatza-ekosistema indartzeko. Horrela, eskualdeko enpresek eguneroko benetako erronketan oinarritutako berrikuntza irekiko ekimenak identifikatu eta abiaraztea bultzatuko dute, startupak zerbitzu berritzaileen diseinuan eta eskaintzan inplikaturik.

Proiektuaren gobernantza-eredua Busturialdeko enpresa-lehiakortasuneko mahaiaren bidez garatzen da. Mahai hori Bermeo-Mundaka-Sukarrietako eta Gernika-aldeko garapen-agentziek, Urdaibaiko Patronatuak eta Busturialdeko enpresa traktoreek osatzen dute.

2020an zehar, itsasoko, automobilgintzaren industriako edo zurgintzaren sektoreko zortzi enpresa elkarrekin aritu dira lanean eskualdeko aukera-ardatzak identifikatzeko, erronkak zehazteko abiapuntua. Gogoeta- eta lehentasun-prozesu baten ondoren, erronka hori aukeratu da Busturialdeko enpresen berrikuntza-jarduera honen abiapuntu gisa.